

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroa eta Frantziako Perigord eskualdea elkarlanean arituko dira Irati ibaiaren eremuan lanbide berriak detektatzeko

*Bi eskualdeetako eragileak elkartu dira aste honetan Foru Komunitatean "Ibaia eta ondarea" izeneko Europako proiektuaren barruan.*

Viernes, 18 de octubre de 2013

Nafarroa eta Frantziako Perigord eskualdea elkarlanean arituko dira Irati ibaiaren eremuan lanbide berriak bilatzeko, Aezkoa eta Zaraitzu ibarretan alegia. Helburua inguruko natura-baliabideak aprobetxatzea da, lanbide berriak detektatu eta jarduera horietan ekintzailtza sustatzeko.

Besteak beste, arrantzako gidaren lanbidea sortzeko aukera aztertzen ari dira. Izan ere, Frantzian existitzen da jada figura hori, baina Nafarroan ez. Adibidez, arrantzaleei jarduerarako zein inguru dauden egokituta adierazteko ardura izango luke.

Hori da bi eskualdeetako politikaren, ekonomiaren, ingurumenaren eta hezkuntzaren alorreko eragileek aste honetan Nafarroan izan duten topaketan hartutako konpromiso nagusietako bat. Esan bezala, topaketa Europako "Ibaia eta ondarea" proiektuaren barruan egin da, Irati eta Dordoina ibaiei balioa emateko.

Egonaldiak bi eskualdeetako ordezkarien arteko harremana estutzeko balio izan du, eta José Iribas kontseilariak parte-hartzaileei Hezkuntza Departamentuan harrera egin ondoren amaitu da ostiral honetan.

### Ikasleen mugikortasuna

Hezkuntzaren alorrean, ikasleen eta irakasleen mugikortasuna indartzeko erabakia hartu da, gaztelaniaren zein frantsesaren irakaskuntza errazteko eta proiektuan parte hartzen duten ikasleek eskualde bateko eta besteko enpresetan prestakuntza-egonaldiak egiteko.

Harreran, Irunberriko Sierra de Leyre BHIko Mikel Pérez ikaslearen kasua eman da ezagutzera. Izan ere, iazko apirilean Frantzian egindako topaketan sortutako harremanen ondorioz, uda honetan gazte talde baten



Iribas kontseilariak "Ibaia eta ondarea" Europako proiektuko partaideei egin die harrera.

begirale gisa egin du lan Ferreten (Bordele).

Proiektuan, Nafarroari dagokionez, Nekazaritzako eta Basogintzako IBko " Basogintzako lanak eta inguru naturalaren kontserbazioa" erdi-mailako heziketa-zikloko eta Sierra de Leyre BHIko " Kirol-jarduera fisikoen animazioa" goi-mailako heziketa-zikloko ikasleek parte hartzen dute.

Frantziako partaideak Monbazillac-eko Lycée Agricole zentroko eta Bergerac-eko Lycée Maine de Biran zentroko ikasleak dira. Aste honetan Nafarroan izan dira (28 ikasle) Irati ibaiaren eremua bertatik bertara ezagutzeko.

Nafarroako partaideekin batera, natura-ondarea babesteko jarduerak burutu dituzte, baita kirol-jolaserako jarduerak ere, esate baterako, canoraft jaitsiera Irati ibaian zehar, Irunberriko arrolaren parean. Gainera, ondarearen, kulturaren eta lurraldeko garapen ekonomikoaren aberastasuna ezagutu dute egin dituzten ibilaldietan. Adibidez, Irunberriko arrolaren interpretazio-zentrora, Iratiren behatokira, Irabiako uharkara, upeltegietara, gaztandegietara eta abarretara joan dira.

### **" Ibaia eta ondarea" proiektua**

" Ibaia eta ondarea" Nafarroaren eta Frantziako Perigord eskualdearen arteko lankidetzaproiektua da, Europako Comenius Regio programaren barruan egin dena. Helburua Irati eta Dordoina ibaietara zein haien ibaiadarrei balioa ematea da. Ekimena bi urtekoa da (2012ko abuztua - 2014ko abuztua) eta 84.750 euroko aurrekontua du.

Lehen fasean bi ibaien inguruko eremua aztertu da. Bi eskualdeetako LHko ikasleak dira partaideak: Foru Komunitatean, Sierra de Leyre BHIko eta Nekazaritzako eta Basogintzako IBko ikasleak; Frantziako eskualdean, Monbazillac-eko Lycée Agricole eta Bergerac-eko Lycée Maine de Biran.

Azterlan hori oinarri, bigarren fasean, sektore profesionalak eta kulturaren, hezkuntzaren eta elkarten sektoreak elkartu dira ibaietara eskaintzen dituzten erabilera posibleei eta ibaien babesari buruzko hausnarketa egiteko. Gainera, eskualdeen arteko harremanak sustatzeko aukera ematen du, hezkuntzaren zein ekonomiaren alorrean.

Nafarroaren aldetik, honako hauek parte hartzen dute: Foru Gobernua, Hezkuntza Departamentuaren eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuen bidez; Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroa (CRANA); eta Sierra de Leyre BHI eta Nekazaritzako eta Basogintzako IB. Dordoinaren aldetik, honako hauek dira partaideak: eskualdeko Kontseilu Nagusia; Pays du Grand Bergeracois, Epidor eta Migado; Couze et Couzeau sindikatua; eta Monbazillac-eko Lycée Agricole eta Bergerac-eko Lycée Maine de Biran.